

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3301

IRAGARKIA, 2025eko uztailaren 1ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarierena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Vitoria-Gasteiz eta Burgelu udal-mugartetan «Cluster Gamarra VIII-IX» parke eolikorako alde zuzeneko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), «Cluster Gamarra VIII-IX» parke eolikorako aurkeztutako alde zuzeneko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

– Eskatzailea: Premier Espf Ipaz Haizea 8 SL (IFK: B56201502), bere izenean eta Premier Espf Ipaz Haizea 9 SL (IFK: B56201494) ordezkatuz.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Vitoria-Gasteiz eta Burgelu (Araba).

– Haize-sorgailuen kopurua: 2.

– Instalatu den potentzia gordina: 9,98 MW.

– Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalaren UTM Koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
1	535367	4743832
2	540030	4743832
3	535367	4740313
4	540030	4740313

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit hamar eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den azken egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozedura baliatuta, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.